

galderarik egin, jakí gozoei baino ez nien erreparatzen, baina berbeta atsegineko gizona zen hura. Erramun zuen izena eta garai hartako gizon-emakume asko bezala, aukeratu barik, gerra zibilean nahastuta zebilen.

Jaso zuten aginduari jarraiki bere gudarosteak lubaki batean eutsi behar zion. Baina, Erramunek esan zidanaren arabera, berehala galdu zuten babes lerroa etsaiaren suaren mende. Buztana San Andresen gurutze beltzez apaindutako hegazkin haiek bonbaz Josi zuten defentsa lerro osoa, eta infanteriak gogor astindu lubaki eta bunkerrak, non zeuden jakingo balute bezala.

Orduantxe sakabanatu ziren bizirik eta onik irten ziren gizon guztiak, borroka galduta ikusita eta behin jatorri ezberdineko armalagun izan zirenak atzean utzita.

Erramuni malkoak agertu zitzaizkion masailetan. Kontaketa eten zuen, altxatu, eta ondoko errekastora joan zen. Trantze latz hura arindu nahian esku ahurretan ura hartu eta aurpegia garbitu zuen. Ur tantak aurpegian behera zituela hasperen luzea egin, eta ostera ere jesarri egin zen. Motxilatik manta bat atera zuen, eta bizkarraren gainetik jartzen ari zela maitekiro esan zidan:

- Erdu hona Matxin! Gau freskoa izango dugu eta!

Bere ondora heldu nintzenean altzoan hartu eta zeukan mantarekin biribildu gintuen biok. Erramun aurrera eta atzera kulunkatzen hasi eta lo kanta goxoa abesten hasi zitzaidan isilean.

Ababatxutxu, ebabaaaaaa

Urrutitik ekarria

Aitatxuk esangotsu

Neure kattuntxoniinaa. Obaaaa

obaaaaaa!

Alabatxu mite politte

Aitatxuren kuttuna

Gordeta dauzkat zuretzat

Musu eta laztanak. Obaaaaa!

Obaaaaa!

Letra entzunda alaba txikerra izango zuela pentsatu nuen, baina ez nintzen ezer itauntzen ausartu.

Bere masailetan behera isurtzen ziren malkoak nireen kontra lehertzen zirela lokartu nintzen. Malko haien laztanek eta bere bularraren dardara gozoak berehalaxe lo eragin zidaten. Logurak erreta nengoen.